


Zientzia-fikzioaren beharra



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
IDAZLEA



PAULA ESTÉVEZ

Klima aldatzen ari zaigun garai honetan –edo hobeki erranda: klima eraldatzen ari garen garai honetan–, etorkizun sozio-ekonomiko-politiko iragarri gaitza eta iluna iruditzen zaigun une honetan, jende arteko elkartzasunak maiz porrot egiten duen momentuan, galtzen ari gara elkarren kontrako kontakizun zientifiko-filosofiko-soziologiko-politikoaren artean, bakoitzak ikuspegi berezia daramala munduaren martxaz eta giza bizitzaz.

Oraindik indarrean daude, nahiz eta bakoitza ez hein bereko itzalarekin, sistema kapitalistak eta komunismoak bultzatu narratioak, mundializazioarena eta artxipelagoena, independentistena eta anarkistena, patriarkatuarena eta feminismoarena, eskuindarra eta ezker-tiarrena. Berrikiago agertu dira besteak, hala nola kolapsologiarena, *survival*-tzaileena, eta abar, gisa batez lehenengoak moldatzera behartzen gaituztenak.

Pertsona asko bizi da kontakizun arrunt ezberdin horien artean iritzi koherenterik ezin eginez, eta ondorioz gertakariak jasanez, modu etsituan. Jende frankok ez du denborarik hartzen gogoetatzeko gizakiaren ekintzen zentzuaz, ez eta bere burua gerorantz

proiektatzeko. Ene inguruan ikusten dudanez, ezaxolakeria da nagusi, eta hori da familia askotan transmititzen den jarrera: gizartearen eta munduaren harat-honatak azaltzen saiatzen diren kontaketen oihartzunak ezagunak dira, eskolen edo militanteen lanei esker, baina ez da horien barnatzeko tirria fermu eta iraukorrik izaten, ez eta, logikoa dena, kontakizun baten edo bestearen haritik kontzienteki engaiatzeko isuririk nabarmentzen.

Uste dut, jasankor eta etsitu gelditzeko joera arin hori areagotzen ari dela egungo gizartearen, galduak garelako klima beroketak dakarren apokalipsia posiblearengatik. Anitzek ez du interesik ez etorkizunarekiko, ez eta iraganekiko, orainaldiak nahasiegia dirudielako. Nola jokatu? Hobe bizitzaz kontsumo moduan horditu, oraindik baimendua zaigun bitartean, eta geroak geroko? Ala katastrofe orokorraren aitzinean prestatzea gure buruak, erreserbak eginez, harresiak eraikiz edo oasi bat sortuz bazterreko toki batean? Ala teknologia berriek eta energia berriztagarrien erabilera orokortuak lekarketen salbamean sinetsi?

Literaturak badu hor premiazko rola

jokatzeke, gai delako gorputzik gabeko kontakizun zientifiko-filosofiko-politiko idorrek haragitzeko eta janzteko, hots, arartekoa egiteko funtsezko jakitate-arloaren eta ekintza-eremuaren artean. Bereziki, uste dut zientzia-fikziozko idazlan gehiagoren beharrean gaude. Ez ohiko moduan, ez sinetsarazteko *happy few* zenbaitek bakarrik salbatuko dutela beren burua espazio-ontzi bati esker, ez sinetsarazteko etorkizun bakarra dela mundu gerra izadi pozoitu baten hondarren artean. Baliteke tokia izatea datu zientifikoak dituen zientzia-fikzioarentzat –anglosaxoiek *hard science-fiction* deitzen dutenaren antzekoa–, gogoeta filosofiko, politiko eta etikoetan ere oinarrituko litekeena, modu sinegarrian eta errealistan frogatu liezagukeena salbamen kolektiboa posible dela –ala ez–.

Zientzia-fikziozko literatura horrek espirituak zorrotzu litzake eta irudime-nak zabaldu, oinarri sendoetan finkatuz. Euskaraz guti garatua den saila da zientzia-fikzioa, baina mereziko luke izatea, ene gustuko azaldu ditudan ezaugarriekin: etorkizun probableak marraztuko lizkiguke, norabideak proposatuz sail ezberdinetan. ●